

NAFARROAKO GOBERNUA

GARAPEN EKONOMIKOA

ESKUBIDE SOZIALAK

OGASUNA ETA FINANTZA POLITIKA

LEHENDAKARITZA, FUNTZIO
PUBLIKOA, BARNEA ETA JUSTIZIAHERRITARREKIKO ETA
ERAKUNDEEKIKO HARREMANAK

HEZKUNTZA

OSASUNA

KULTURA, KIROLA ETA GAZTERIA

LANDA GARAPENA, INGURUMENA
ETA TOKI ADMINISTRAZIOA

SEGURTASUNA ETA LARRIALDIAK

Oteiza museoak larunbat honetan ate irekien jardunaldi bat egingo du eskultorearen urteurrena dela eta

Bilduma iraunkorrarekin batera, "Oteiza, Lekuona, Balenciaga. Osatu gabeko errenazimentua, 1930-1936" izeneko aldi baterako erakusketa nahiz artistaren etxea eta tailerra bisitatu ahalko dira

Jueves, 07 de abril de 2016

Oteiza museoak ate irekien jardunaldi bat egingo du larunbat honetan, apirilak 9, eskultorearen heriotzaren urteurrena dela eta.

Jardunaldi horretan, bisitariak "Oteiza 1908-2008. Bilduma" erakusketa bisitatu ahalko dute, eta bertan artistaren eskultura-obran zehar ibilbide integral bat eskaintzen da; horrez gain,

"Oteiza, Lekuona, Balenciaga. Osatu gabeko errenazimentua, 1930-1936" ikusi ahalko da, Jorge Oteiza (1908-2003), Narkis Balenciaga (1905-1935) eta Nicolás Lekuonaren (1913-1937) obra aztertzen duen erakusketa; egile horiek Bigarren Errepublika garaian Euskal Autonomia Erkidegoko balio plastikoak berritzeko gogo biziz borrokatu zuten.

Azken erakusketa horren komisarioa Gregorio Diaz Ereño izan da, Oteiza museoako zuzendaria, eta martxoaren 17tik maiatzaren 8ra dago ikusgai, mende hasierako nazioarteko abangoardia artistikoen irakaspenak artista horien obran integratzeko asmoz; horretarako, hirurogei pintura, eskultura eta marrazki erabiliko dira, Oteiza museoaren artxibotik hartutako jatorrizko hainbat dokumentazioarekin batera.

Bisitariak artistaren etxean eta tailerrean sartu ahalko dira, halaber, eta bertan, artistari nahiz bere obrari buruzko zenbait ikus-entzunezko ikusi ahalko dituzte; horrekin batera, artistaren dimentsio biografikoei, sortzaileei buruzko gaien araberrako unitateak nahiz unitate geografikoak topatu ahalko dituzte.



Jorge Oteiza eskultorea.